

### 1.1.3 AZKEN XEDEA

#### > Bizitza eman



#### Helburuak

- Ikasitako edukiak eta egitura guztiak erabiltzea.
- Bakarkako lan bat egitea ume bakoitzak zer ikasi duen ikusteko.

#### Prozedura

- Ume bakoitzari pertsonaia bat banatu.
- Azaldu fitxako irudiari bizitza emango diotela; bakoitzak pertsonaia bat sortuko duela:
  - Kolorea emango dio.
  - Izen-abizenak jarriko dizkio.
  - Nongoa den eta non bizi den erabakiko du.
  - Bere lanbidea zein den erabakiko du.
  - Nolakoa den imajinatu eta idatziko du.
- Pertsonaiaren txartela bete eta testutxo bat idatzi. Horretarako, “nire laguna honelakoa da” erabil daiteke.
- Umeei egitekoa bukatu ostean, hezitzaileak ume bakoitzaren lana zuzendu eta ume bakoitzarekin akatsak komentatu.
- Umeei ahoz, talde guztiaren aurrean, euren pertsonaia aurkeztu.

#### Oharrak

- Oso garrantzitsua da ume bakoitzak bakarka lan egitea eta hezitzaileak banakako zuzenketetarako denbora hartzea.
- Umeei aukera eman hiztegi-koadernoak erabiltzeko.